

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako landetxetan ostatu hartutako atzerritarren kopuruak % 60 egin du gora azken urtean

Sánchez de Muniáin kontseilariak IV. Landa Turismoko Nazioarteko Kongresua inauguratu du

Jueves, 21 de febrero de 2013

Nafarroako landetxetan ostatu hartutako atzerritarren kopuruak % 60 igo da azken urtean; era horretako establezimenduetan izan diren 102.392 turisten artean, 13.310, hain zuzen. Aipatu beharra dago landako azpisektore horrek Foru Komunitatean ostatu hartzen duten bidaiari guztien % 9,4 hartzen duela.

2012an landetxetan 311.946 aldiz eman zuten gaua

turistek –hiru bat gau batez beste–, eta haietatik 29.663 atzerritarrak izan ziren. Espainiako autonomia erkidegoen artean, Nafarroa bosgarren postuan dago landetxetan gaua emandako kopuruari dagokionez, [IV. 'Reyno de Navarra' Landa Turismoko Nazioarteko Kongresuaren](#) barnean gaur emandako datuen arabera. Europa hegoaldean antolatzen den landa-turismoko lehiakortasunaren ekitaldi garrantzitsua da eta Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditoriumean inauguratu da bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Juan Luis Sánchez de Muniáin bertan zela.

"Green Holidays" lelopean ostegun eta ostiral honetan ospatuko den aurtengo edizioan, Kongresuaren [programa](#) oinarrituko da landa-turismoak jardunbide iraunkorrago eta ekologikoagoetara bideratzeko duen beharrean, eko-label, turismo berde eta naturako turismo bidaiak eginez.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Landa Turismoaren Federazioak antolatuta, Nafarroako Azoken laguntza teknikoarekin, sektore publiko eta pribatuko profesionalentzat da. Natura-bidaia, bide berde, gastronomia-turismo eta teknologia berrietako 350 profesional eta nazioarteko aditu bertaratzea aurreikusten da, honako herrialde hauetatik etorriko direnak: Espainia, Austria, Alemania, Britainia Handia, Frantzia, Letonia... Horretarako, programan sartuko dira: hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak eta esperientziak, 'networking' gunean adituak bertan izanik.



Sánchez de Muniáin kontseilaria, María Ángeles Ezquer (Nafarroako Landa Turismoaren Federazioa) eta Kongresuaren zuzendari Luis Cortés-en erdian.

Ekitaldi horren esparruan, ostiral honetan hasi eta igandea bitarte [Navartur Reyno de Navarra](#), VIII. Nazioarteko Turismo Azoka burutuko da. Aurreko edizioan 25.000 pertsona baino gehiagoren bisita jaso zuen, eta Estatuko nahiz nazioarteko bidaien, turismo-enpresen eta abarren inguruan Espainia Iparraldeko interes handieneko hitzordu bihurtu da.

Sánchez de Muniáin kontseilariak –Nafarroako Landa Turismoaren Federazioko lehendakari María Ángeles Ezquer eta Kongresuko zuzendari Luis Cortés-ekin batera– inaugurazioan azpimarratu du turismoa Nafarroaren produktu garrantzitsuenetako bat dela (bertako BPGaren % 6, 29.000ko biztanleria aktiboarekin eta 668 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak sortuz), "azken urteotan hazkunde esponentziala" izan duen "sektore bizia" dela eragile pribatu eta publikoek elkarrekin batera egindako lanari esker eta bisitaria erakusten zaion adeitasunari esker, azaldu du. Nolanahi ere, azpimarratu du sektorearen finkatzea eta garapenak "produktuetan eta haiek kudeatzeko eran berrikuntza egitea" eskatzen duela.



Kongresura bertaratutakoak.

Sánchez de Muniáin nahia da IV. Kongresu honek sektoreari honako arlo hauetan aurrera egiten lagun diezaiola: profesionalizatzea, kalitatea, merkaturatzea, berrikuntza eta turismo-dinamizazioa, eta eragile guztien arteko integrazioa indartu dezala, bai eta sektore publiko nahiz pribatuaren arteko sintonia ere.

750 landetxe Nafarroan

Kontseilariak adierazi duenez, Nafarroako Gobernuaren kezketako bat sektore hori sustatzea da aberastasunaren eta enpleguaren sorreran laguntza eman dezan eta, horretarako, Nafarroako Turismoko Plan Integrala du; eta oraintxe bertan produktuen araberako plan eraginkorrak egiten ari da, Nafarroako Turismo Kontseiluaren barnean sortutako zenbait batzorderekin koordinatuz.

Kontseilariak gogora ekarri du, Turismoko Zuzendari Nagusien Mahaiak bihar Iruñean egingo duen bilkuraren bat etorritz, bertan parte hartuko dutela era, Turespañako zuzendari Manuel Butler Halter-ek, eta baita Turismoko zuzendari nagusien ordezkari zabal batek ere; horri esker, bertaratutakoek administrazio publikoek zer lan egiten dituzten jakin ahalko dute eta haiek landa-turismoaren inguruen zer ikuspegi duten.

Aipatu beharra dago, gaur egun, Nafarroan 750 landetxe daudela, eta 5.350 lagunentzako lekua dutela (547 iparraldean; 56, Iruñean eta Iruñerrian; 77, Estellerrian; 44, erdialdean; eta 32, Erriberan). Landetxe-motaren arabera, 146 gelak dira eta 604 etxebizitza guztia alokatzeko. Kalitateari dagokionez (orrialdeak), 213 orrialde batekoak dira; 501, bikoak; eta 36, hirukoak. Esan behar da hamar urtetan (2003tik), landetxe-kopurua % 4,5 igo dela eta tokien edo plazen kasuan, % 45,7 (2003an, 510 landetxe eta 3.060 lagunentzako lekua).